



Higiezinaren Eskaintzaren Inkestaren azken argitalpena - OFIN (182415). 2021eko 3. hiruhilekoa

[2021eko Urteko Estatistika Egitaraua onartzen duen 2021eko uztailaren 27ko 191/2021 Dekretua](#) onartu arte, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak egin du **Higiezinaren Eskaintzaren Inkesta (OFIN, 182415)** Euskal Autonomia Erkidegoan.

Estatistika ofizial hori 1994an egin zen lehen aldiz, orduko Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak estatistika horri ekitea erabaki zuenean, higiezinaren merkatuaren dinamikaren jarraipena egin ahal izateko eskaintzaren ikuspegitik, bai dimentsionamenduari (etxebizitza kopurua) eta kualifikazioari (tipologia) dagokienez, bai prezioen bilakaerari dagokionez. **Estatistika-eragiketa hori izan zen estatuko lehena etxebizitza-prezioak eskaintzen.**

Eskuratutako esperientziari esker, inkesta honetan erabilitako tresna metodologikoak eta analitikoak hobetzen joan dira, lortutako emaitzek zehaztasun handiagoz islatu dezaten merkatuaren errealitatea. Kontuan izan behar da azterlan honek zailtasun metodologiko intrintsekoak dituela hainbat segmentu berezitateko merkatu baten (higiezinaren merkatua) bilakaera egokirako (etxebizitza berriak/etxebizitza erabiliak; erregimen libreko etxebizitzak/etxebizitza babestuak, etab.), eta merkatu horren ekoizpen-jarduera (etxebizitzaren eraikuntza) unean uneko gorabeherari lotuta dagoela eta agente eskaintzaileak (etxebizitza berrien sustatzaileak) aldakorrak direla.

1994az geroztik, higiezinaren merkatuaren egoerak aldaketa handiak izan ditu, eremu horretako datu estatistikoaren eskuragarritasunak bezala. Hori dela eta, eraldaketa metodologikoa egin behar izan dugu, beste lurralde-eremu batzuekin eta beste estatistika-eragiketa ofizial batzuekin aldera daitekeen informazioa eskaini ahal izateko.

Gaur egun, ez dago higiezinaren merkatuan salgai edo alokairuan dauden higiezinaren eskaintza-prezioei buruzko informaziorik erabiltzen duen administrazio publikorik. Izan ere, sektore horretan Internet garatzeak eragin duen iraultzaren ondoren, higiezinaren atari nagusiek sortzen dute zuzenean estatistika-informazio hori beren webguneetan, beren atarietan dituzten higiezinaren eskaintzatik abiatuta.

Espainiako etxebizitzaren estatistika-informazio ofizialaren hornitzaile nagusiak, Estatistikako Institutu Nazionala (INE) eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioa, higiezinaren salerosketa-prezioetan oinarritzen dira.

Hori dela eta, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Estatistika Organoak [Higiezinaren Salerosketaren Estadistika - ECVI \(182415\)](#) eragiketa sartu du [2021eko Urteko Estatistika Egitaraua onartzen duen 2021eko uztailaren 27ko 191/2021 DEKRETUAN](#). Eragiketa horrek higiezinaren salerosketa-prezioen informazioa eskainiko du, [Erregistratzaileen Elkargoak](#) eskura duen informazioan oinarrituta. Erakunde horrek emandako informaziotik abiatuta, hiru hilean behin Euskal Autonomia Erkidegoan egindako higiezinaren salerosketa-transakzioei buruzko informazio estatistikoa eskuratuko da.

Beraz, esan dezagun 27 urteko etxebizitza-politikak definitzen eta ebaluatzen lagundu digun estatistika bat dela, eta ongi etorria ematen diogu hemendik aurrera ordeztzen duen estatistika-eragiketari. Hori ez da jada oinarrituko eskaintako prezioetan, jabetzaren erregistroetan egindako eta inskribatutako salerosketen prezio errealean baizik.